11.5. Ea ondo eta besteekin batera aritzen den taldean lan egitean.

11.6. Ea ardura zaion matematika-lanak txukun eta ordenatuta aurkeztea.

12. Nork bere ahalmenean konfiantza duela, jarrera kritikoa duela eta autonomoa dela erakustea, edukiekin zerikusia duten erroreei, erronkei eta matematika-lanei aurre egiteko.

12.1. Ea erakusten duen bere buruan konfiantzarik matematika-jarduerak egiterakoan.

12.2. Ea sortzeko gaitasunik duen, eta ea ez den akatsen beldur.

12.3. Ea jarrera kritikorik duen egoerak interpretatzen direnean, eta horien gainean argumentatu eta ebazpideak ematen direnean.

12.4. Ea autonomoa den zenbait teknologia-tresna erabiltzeko (kalkulagailua, neurketa-tresnak, ordenagailu-programak…).

12.5 Ea erakusten duen autonomiarik matematika-edukiak eguneroko bizitzan aplikatzean, eta ea gai den haien arteko erlaziorik ezartzeko.

HERRITARTASUNERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZA

SARRERA

UNESCOren «XXI. menderako ikastea» programak, Jacques Delors jaunak koordinatutakoak, etorkizuneko hezkuntzaren lau oinarri finkatzen ditu: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, izaten ikastea. Europako Batzordeak eta Europako Erkidegoko beste erakunde batzuek, bestalde, zenbait gaitasun proposatu dituzte eta MECek errege-dekretu batean zehaztu ditu horiek. Oro har, gaitasun horiek lau oinarriak zehazten eta zabaltzen dituzte eta, horiek bezala, hezkuntza herritarrentzako zerbitzutzat jotzen dute, ikuspegi berritzaile eta eguneratu batetik. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, gaitasun horiek kontuan hartuta, curriculum bat proposatzen du eta, hor, horien forma-eskema gainerako elementuetara zabaltzen du. Beraz, «Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzari» dagokionez, gaitasun orokorrak zehaztasunez islatzea da helburuen eta ebaluazio-irizpideen xedea. Aldaketa adierazgarria da hori: irakatsi behar denari baino areago, ikasi behar denari ematen dio garrantzi handiagoa.

Beste alde batetik, Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen hezkuntza baterako oinarrizko eremua proposatzen du bere «Giza eskubideen hezkuntzarako Munduko Programaren lehenengo etaparako (2005-2007) ekintza-planaren proiektu berrikusian», eta curriculum honek erreferente gisa hartzen du hori. Horren arabera, «...giza eskubideei buruzko hezkuntzak eragin esanguratsua du horiek betetzeko orduan. Giza

11.5. Trabaja bien en equipo, colaborando con los demás.

11.6. Presenta clara y ordenadamente los trabajos matemáticos.

12. Mostrar confianza en las propias capacidades, espíritu crítico y autonomía personal para superar las equivocaciones, los retos y los trabajos matemáticos relativos a los diferentes contenidos.

12.1. Tiene confianza en si mismo al realizar las actividades matemáticas

12.2. Es creativo y no tiene miedo a equivocarse.

12.3. Se muestra crítico respecto a interpretaciones de situaciones, argumentación y soluciones a problemas.

12.4. Utiliza con autonomía algunas herramientas tecnológicas (calculadora, instrumentos de medida, programas de ordenador…).

12.5. Muestra autonomía en la aplicación y relación de los diferentes contenidos matemáticos con la vida cotidiana.

EDUCACIÓN PARA LA CIUDADANÍA Y LOS DERECHOS HUMANOS

INTRODUCCIÓN

El programa de la UNESCO «Aprender para el siglo XXI» que coordinó Jacques Delors, señala cuatro pilares de la educación del futuro: aprender a conocer, aprender a actuar, aprender a vivir juntos, aprender a ser. A su vez, la Comisión Europea y otras instancias del ámbito de la Comunidad Europea han propuesto una serie de competencias que el MEC ha concretado en un Real Decreto. En general, esas competencias pueden considerarse como concreción y ampliación de los cuatro pilares y, como ellos, conllevan una visión renovadora y actualizada de la educación entendida como servicio a la ciudadanía. El Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, plantea a partir de ellas un currículum en el que su esquema formal se extiende al resto de elementos. Así, en lo que hace a «Educación para la Ciudadanía y los derechos Humanos», los objetivos tratan de reflejar las competencias generales en un nivel mayor de concreción, de la misma manera que los criterios de evaluación. Se trata de un cambio significativo que pone el acento en lo que se ha de aprender y no tanto en lo que debe enseñarse.

Por su parte, la Organización de Naciones Unidas en su «Proyecto revisado del plan de acción para la primera etapa (2005-2007) del Programa Mundial para la educación en derechos humanos» propone el marco base para una educación en Derechos Humanos, marco que este currículum toma como horizonte referencial. De acuerdo con él, «...la educación en derechos humanos contribuye decisivamente a la realización de

eskubideei buruzko hezkuntzaren helburua honako hau ulertaraztea da: Giza Eskubideak komunitate guztietan eta gizartean oro har bete daitezen lortzea pertsona guztien erantzukizuna da. Ildo horretan, epe luzera, giza eskubideen urratzeak eta indarkeriazko gatazkak eragozten eta berdintasuna eta garapen iraunkorra sustatzen laguntzen du; bai eta demokrazia-sistemetan erabakiak hartzeko prozesuetan pertsona gehiagok parte hartzen ere, Giza Eskubideen Batzordearen 2004/07 ebazpenak ezarritakoaren arabera». Esandako eremu hori bere barnean hartzen duen ikuspuntu globalizatzailea curriculum honetan guztian islatzen da; bai sarrera honetan, bai gaitasunetan eta edukietan, bai eta ebaluazio-irizpideetan ere.

Hala, «Herritartasunerako Hezkuntzaren» garrantzia nabarmendu egiten da, bere gain hartzen baitu gizarte-garapen konplexu baten eskakizunei aurre egingo dieten herritarrak trebatzeko ardura. Honako hauek dira eskakizun horietako batzuk: ekonomia- eta kultura-globalizazioa, ezagutzaren kudeaketa, etengabeko teknologia-aurrerapenak (eta horien alderdi kaltegarriak, hala nola ingurumena andeatzea, Giza Eskubideak urratzea, indarkeriazko gatazkak, ekonomia-, lan- eta sexu-esplotazioa, etab.). Horiek guztiek gizarte-sistema kapitalistaren garapenaren beste etapa bat osatzen dute; etapa horrek historia guztian ez du parekorik izan eta «modernitate erreflexibo» deitu zaio. Herritartasuna gauzatzeko, hau da, herritar gisa jarduteko, gutxienez, hiru alderdi osagarritan bizikidetza erraztuko duten balioetara eta jokaeretara jo behar da. Alde batetik, hurbilketa teoriko bat behar da, ikasleei pentsamendu zorrotz bat izateko nahitaezkoak diren elementuak menderatzeko trebetasuna emango diena. Beste alde batetik, balioek, beren balio-izaera mantenduko badute, jokaera baldintzatu behar dute; beraz, beharrezkoa da horiek ingurune hurbilean gauzatzea gizabidezko ekintzetan, hau da, ikastetxean. Kontuan hartu beharreko hirugarren alderdia, azkenik, zera da: herritar-jokaera gehienak familia-ingurunean eta ingurune sozialean gertatzen dira, eta horiek hezkuntza-jardueraren testuingurua zehazten dute, horren eskura ez badaude ere. Hori guztia aintzat hartuz, herritar-ekintzei lehentasuna eman behar zaie ikastetxearen ingurunean.

Ikastetxea eta ikastaldea antolatzeko, balio demokratikoak eta Giza Eskubideak hartuko dira kontuan; hala, demokrazia parte-hartzaile bati dagozkion gizabidezko jokaerak sustatuko ditugu, ikasleak horretarako hezten ari baikara. Honako hauek dira gizabidezko jokaera horietako batzuk: elkarrizketan eta arrazoizko eztabaidan jardutea, ikaskideekiko begirunea izatea, erabakiak hartzen parte hartzea, adostutako jokaera-kodeak betetzea, etab. Proiektu honek ikastetxea bere osotasunean hartzen duenez, irakasgai bat baino gehiago da «Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza»; hain zuzen ere, ikastetxeko bizikidetzaren ardatza da. Bizikidetza horrek gizabidezko gaitasunak dituzten herritarrak

los derechos humanos. La educación en derechos humanos tiene por objeto fomentar el entendimiento de que cada persona comparte la responsabilidad de lograr que los derechos humanos sean una realidad en cada comunidad y en la sociedad en su conjunto. En este sentido, contribuye a la prevención a largo plazo de los abusos de derechos humanos y los conflictos violentos, a la promoción de la igualdad y el desarrollo sostenible y al aumento de la participación de las personas en los procesos de adopción de decisiones dentro de los sistemas democráticos, según se establece en la resolución 2004/71 de la Comisión de Derechos Humanos». El punto de vista globalizador que incluye dicho marco se ve reflejado en el presente currículum, desde esta misma introducción hasta los criterios de evaluación, pasando por las competencias y los contenidos.

En estas coordenadas, «Educación para la ciudadanía» adquiere una relevancia notable ya que asume directamente la tarea de desarrollar la práctica de una ciudadanía que haga frente a las exigencias del complejo desarrollo social, tal como la globalización económica y cultural, la gestión del conocimiento, los avances tecnológicos constantes (y su anverso negativo, la degradación del medio, vulneración de los Derechos Humanos, conflictos violentos, explotación económica, cultural y sexual, etc.), que conforman una nueva etapa en la evolución del sistema social capitalista sin parangón en la historia que se ha denominado «modernización reflexiva». Poner en práctica la ciudadanía, es decir, ejercerla, supone recurrir a valores y conductas que favorezcan la convivencia al menos en tres planos complementarios. Por un lado, es necesario un acercamiento teórico que habilite al alumnado para dominar los elementos imprescindibles de un pensamiento riguroso. Por otro, los valores solo lo son en la medida en que rigen la conducta, por tanto será imprescindible que se materialicen en actos cívicos en su entorno cercano, el centro educativo. Todavía un tercer plano deberá tenerse en cuenta, el entorno familiar y social en el que se desarrollan la mayor parte de las conductas ciudadanas y que forma el horizonte de la acción educativa aunque quede fuera del alcance inmediato. Teniendo en cuenta esto, la acción ciudadana en el entorno del centro adquiere un protagonismo de primer orden.

El centro y el aula deberán organizarse de acuerdo a valores democráticos y a los Derechos Humanos, de manera que se favorezcan conductas cívicas, propias de una democracia participativa para la que estamos educando al alumnado (ejercicio del diálogo y de la discusión racional, respeto a los compañeros y compañeras, participación en la toma de decisiones, códigos de conducta consensuados, etc.). Naturalmente, este proyecto incluye al centro en su conjunto, de manera que «Educación para la Ciudadanía y los Derechos Humanos» es algo más que una materia, es el eje sobre el que debe edificarse la convivencia escolar. Una convivencia basada y orientada a formar ciudadanos y ciudadanas

prestatzea du helburu, bai eta gizarte demokratikoan parte hartzetik sortzen diren erantzukizunak hartzeko prest dauden herritarrak sortzea ere. Prestakuntza hori ematea premiazkoa da; izan ere, kontsumo- eta erosotasun-maila hazteak jendearen parte-hartzeko prozesuekiko borondate txarra eta inplikazio falta ekarri ditu. Gainera, hainbat gairen inguruko axolagabekeria ere handitu egin da, hala nola indarkeriaren ingurukoa eta ingurumena andeatzearen ingurukoa, kolektibo batzuek pairatzen duten muturreko pobreziaren, bazterkeriaren, xenofobiaren edo bereizkeriaren ingurukoa eta, oro har, Giza Eskubideak zapaltzearen ingurukoa. Horregatik, ikasleei hitz egiteko aukera emateaz gainera, familiei eta hezkuntza-komunitateko gainerako estamentuei ere eman beharko zaie aukera hori. Horretarako, ikastetxe osoan, segurtasun- eta maitasun-giroa sortu behar da, eta egitura demokratikoez eta parte hartzeko bideez baliatu. Legeak ezarritakoez gainera -Eskola Kontseilua, esaterako-, badaude beste aukera batzuk ere; adibidez, ikaslez osatutako gelako kontseilua edo ikastetxeko kontseilua, edo Agenda 21eko batzordeak eta ikasleek parte hartzeko eskolarteko foroak. Horietan, arauak eta protokoloak lantzen dira, eta bizikidetza edo garapen iraunkorrari buruzko erabakiak hartzen. Ekintza horien bidez, honako hauek sustatzen dira: ideiak adieraztea, entzutea, erabakiak hartzea, ingurunearekin harremanak izatea eta ikastetxeen artean lankidetzan aritzea.

Beraz, «Herritartasunerako Hezkuntza» curriculumean sartu izana pauso erabakigarria da herritartasuna lortzeko, herritartasuna gizarte demokratiko batean bete beharreko eskubide eta betebehar multzotzat hartuta. Planteamenduak, doktrinamendutik urruntzen denez, hezkuntza unibertsalaren ideia bereganatzen du, «herritartasun» kontzeptuari beti «demokratikoa» izenondoa lotzen baitio. Gatazkak lantzen eta bizikidetzarako printzipioak eta arauak zehazten laguntzen duen prozedura bat da demokrazia, bai bere bertsio politikoetan eta erakundeetan, bai eta pertsonen arteko adierazpenetan ere. Maila horretan, gizartearen barne-egitura agerian geratzen da: eguneroko errealitatearen eta indarrean dauden arauen bidegabekeria nabarmentzen da; bizimodu bidezkoagoak sortzea sustatzen da, bai pertsonen artean, bai eta maila kolektiboan ere; errealitatea kritikoki epaitzen laguntzen duten balio-printzipioak lantzen dira era autonomoan, arrazoizkoan eta elkarrizketaren bidez; pertsonek berek eraikitako printzipio eta arauekin bat datozen jokabideak bereganatu ditzaten lortzen da; eta gizarteak bere buruari ezarritako arauak kritikoki onartzea ahalbidetzen da. Dudarik gabe, hezkuntzan, gogoetarako eta hainbat gai garrantzitsu jorratzeko espazio baten beharra dago. Hauek dira gai horietako batzuk: herritartasun globala, norbanakoaren nortasuna eta gainerako nortasunekin errespetuz harremanetan jartzea, kultura-aniztasuna, generoen arteko harremanak eta norbanakoaren betebeharrak. Egia esan, balioen eta erabaki pertsonalen arloan sartzen direnez, kontuz landu beharreko gaiak dira horiek; baina, horrek ez du esan nahi elkarrizketaren bidez eta horrekin lotutako adierazpen-berdintasunaz eta arrazionaltasunaz baliatuz

competentes cívicamente y dispuestas a asumir las responsabilidades derivadas de la participación en la sociedad democrática, tarea urgente si consideramos que el aumento de los niveles de consumo y comodidad ha derivado en no pocas ocasiones en desafección y nula implicación en los procesos participativos e incluso en indiferencia con respecto a la violencia, la degradación del planeta y la extrema pobreza, la exclusión, la xenofobia o la discriminación que viven algunos colectivos y en general con la conculcación de los Derechos Humanos. Por eso, además de dar voz al alumnado, habrá que dársela también a las familias y al resto de estamentos de la comunidad educativa, para lo que se requiere crear un clima seguro y afectuoso y dotarse de estructuras democráticas y canales de participación, para todo el centro. Además de los legales como el Consejo Escolar, existen otras posibilidades como el consejo de aula o de centro, constituidos exclusivamente por el alumnado o las comisiones de Agenda 21 y los Foros interescolares de participación donde se elaboran normas y protocolos y se toman decisiones sobre la convivencia o el desarrollo sostenible y a través de los cuales se estimula la expresión de ideas, la escucha, la toma de decisiones, las relaciones con el entorno y la cooperación entre centros.

Así pues, la inclusión en el currículum de «Educación para la Ciudadanía» supone un paso decisivo en la consecución de la ciudadanía entendida como ejercicio de derechos y deberes en una sociedad democrática. El planteamiento se aleja del adoctrinamiento para adquirir una dimensión educativa universal al entenderse el concepto de «ciudadanía» inseparable del adjetivo «democrática». Desde sus versiones político-institucionales hasta sus manifestaciones interpersonales, la democracia es un procedimiento que permite tratar conflictos y adoptar principios y normas de convivencia. En este ámbito se hace visible el entramado social, se detectan los aspectos injustos de la realidad cotidiana y de las normas sociales vigentes, se potencia la construcción de formas de vida más justas tanto en la dimensión interpersonal como en la colectiva, se elaboran autónoma, racional y dialógicamente principios de valor que ayudan a enjuiciar críticamente la realidad, se consigue que las personas hagan suyas comportamientos coherentes con los principios y las normas que personalmente han construido y se posibilita que asuman críticamente las normas que la sociedad se ha dado a sí misma. La necesidad de introducir en la educación un espacio para la reflexión y la práctica centrada en aspectos tan sobresalientes como la ciudadanía global, la propia identidad y su relación respetuosa con las demás identidades, la diversidad cultural, las relaciones de género o los derechos y deberes individuales, parece incontestable. Ciertamente, se trata de aspectos sensibles al introducirse en el mundo de los valores y de las elecciones personales, pero no por ello inaccesibles mediante el diálogo y lo que él implica: igualdad comunicativa y racionalidad.

landu ezin ditugunik. Jarrera bat hartzea eta balio-judizioak egitea eskatzen duten egoerei aurre egin beharko diete ikasleek; horrek, alde batetik, norberaren balioei eta jokaerei buruzko kritika egitera bultzatuko ditu, eta, bestetik, erantzukizuna hartzera behartuko, erantzukizun hori sortzen duen egoera dialogikoko nahitaezko elementua baita.

Parte hartzeko aukera ematen duen eta, halaber, justiziarekin, solidaritatearekin eta desberdintasunak gainditzearekin konprometituta dagoen demokrazia bat eraikitzeko, nahitaezkoa da pertsonaren alderdi soziala errespetuan eta Giza Eskubideetan oinarrituta garatzea. Eskubide horiek herritarren errealitate zehatzari lotutako dimentsio bat gehitzen diote herritartasunari; beraz, ezin dira hartatik banandu. Horiek curriculumean sartzeko, informazio-gizartearen iturrietatik gazteen eguneroko bizitzan etengabe agertzen diren egungo eta premiazko alderdiak landu behar dira ikasleekin. Era berean, debateetan, ikerketa txikietan eta banakako zein taldekako gogoetetan kontuan hartu beharreko irizpideak izango dira. Batzuetan, Giza Eskubideak abstrakzio handiz lantzen dira. Hori ekiditeko, eskubideen zapalketa pairatzen dutenen ahotik jaso behar dute informazioa eta, hain zuzen ere, zapalketa hori eragiten duten egiturazko egoerak aztertu. Eremu horretan, alde batetik, generoarekin lotutako egoera bat nabarmenduko dugu: emakumezkoek gure gizartean jasaten duten indarkeria- eta bereizkeria-egoera tamalgarria. Eta beste alde batetik, berriz, nortasun askotarikoak eraikitzeko erronka eta immigrazioa dela-eta gure gizartera iristen diren pertsonengan kide izatearen eta gizarteratzearen sentimendua sorrarazteko erronka ere nabarmenduko ditugu. Hori dela eta, gai horiei buruzko helburu eta eduki konkretuak proposatu dira, baina, hala ere, zeharkako gaiak izaten jarraituko dute. Izan ere, helburuak lortzera bideratutako edukiak generoaren ikuspuntua eta kultura-aniztasunarena kontuan hartuz landuko dira, eta ahal denean errealitate sozialeko baldintza-desberdintasuna nabarmenduko.

Pribatutasunaren egungo egoerak ere kontuan hartuko dira; bereziki, teknologia elektronikoaren eta digitalaren garapenaren ondorioz sortutako egoerak. Herritartasun kontzeptuak bere barnean hartu behar ditu gainerakoen pribatutasuna eta horri atxikitako datuen trataera errespetatzea; bai eta norberaren pribatutasunaren eta hori ez urratzearen balioaz ohartzea ere. Eremu pribatuaren eta publikoaren arteko oreka egokia –dagozkien ekintza eremuekin batera– izango da herritartasuna interpretatzeko gakoetako bat. Pribatutasunari dagokion eremu subjektiboa eta Giza Eskubideen unibertsaltasuna batzen ditu herritartasun horrek.

Esan bezala, herritartasunerako hezkuntza irakasgai soil batera mugatzeak, praktikan, arrisku bat dakar: curriculumeko eta hezkuntza-komunitateko gainerako elementuek eredu demokratikoak eraikitzeko duten inplikazioa edukirik gabe uztea, bai ikasgelan, bai eta

El alumnado se enfrentará así a situaciones que exigen tomas de posición y juicios de valor, lo que potencia, por una parte, la actividad crítica sobre los propios valores y conductas y, por otra, la asunción de la responsabilidad como elemento inevitable del contexto diálogico en el que surge.

Desarrollar la dimensión social de la persona desde el respeto y la filosofía que emana de los Derechos Humanos es prioritario para la construcción de una democracia participativa y comprometida con la justicia, la solidaridad y la superación de desigualdades. Por tanto, son inseparables de la ciudadanía, a la que aportan una dimensión ligada a la realidad concreta de las ciudadanas y ciudadanos. Su incorporación al currículum supone trabajar con el alumnado aspectos actuales y urgentes presentes en su vida cotidiana a través de los incesantes flujos de la sociedad de la información. Al tiempo, servirán como criterio en la práctica de debates, pequeñas investigaciones y reflexiones personales y colectivas. La abstracción que en ocasiones impregna el tratamiento de los Derechos Humanos ha de ser evitada mediante la combinación de relatos biográficos de personas que sufren la conculcación de sus derechos y la referencia a situaciones estructurales que provocan precisamente esa conculcación. Dentro de este marco destacaríamos la que tiene que ver con el género a tenor de la lamentable situación de violencia y discriminación que soportan las mujeres en nuestra sociedad, junto al reto que supone la construcción de identidades múltiples y el desarrollo del sentimiento de pertenencia e integración de las personas que a través del fenómeno de la inmigración están incorporándose a nuestra sociedad. Es este el motivo que ha llevado a proponer objetivos y contenidos específicos sobre dichas cuestiones, lo que no quiere decir que desaparezca su transversalidad. En efecto, el trabajo a partir de los contenidos para alcanzar los objetivos se realizará sin olvidar el enfoque de género y el intercultural, procurando allí donde sea posible resaltar las diferentes condiciones de la realidad social.

Igualmente, habrá de tenerse en cuenta las nuevas condiciones en que se encuentra la privacidad, especialmente a raíz del desarrollo de las tecnologías electrónicas y digitales. El concepto de ciudadanía debe incluir el respeto a la privacidad ajena y al tratamiento de datos inherentes a la misma, así como también la toma de conciencia sobre el valor de la propia privacidad y su invulnerabilidad. El adecuado equilibrio entre esfera privada y pública, con sus correspondientes ámbitos de acción, será una de las claves de interpretación de la ciudadanía que conjuga la esfera subjetiva propia de la privacidad con la universalidad de los Derechos Humanos.

Tal como se ha indicado, reducir la educación para la ciudadanía a una simple asignatura puede significar en la práctica vaciar de contenido la necesaria implicación del resto de las áreas del currículum y de la comunidad educativa en la construcción de modelos democráticos,

ikastetxearen kudeaketan eta parte-hartzean ere. Horregatik, curriculum honetako osagaiek printzipio argi eta erraz bati jarraitzen diote bereziki: gaitasun bat lortzeko, hori osatzen duten ahalmenak gauzatu behar dira. Hori egiteko, arreta berezia jarri beharko da ikasketa-egoera aproposak sortzeko orduan, metodologia eta teknika egokiak erabiliz. Horrela ezarriko ditugu erreferentzia-eremuak, pertsona orok honako hauek egin ahal ditzan: bere nortasuna edo nortasun askotarikoak aukeratu eta eraiki eta lotura sozialak jorratu; gizarte demokratikoetan elkarrekin bizitzen ikasi, hau da, herritartasuna gauzatzen, elkarrizketan jarduten, gainerako pertsonekin egoten eta horiek aintzat hartzen ikasi; eta erabakiak hartzen eta hainbat aukeraren artean hautatzen ikasi. Herritartasuna gauzatzea honela ulertzen da proposamen honetan: gizartea osatzen duten gizarte-, kultura-, ekonomia-, politika- eta bizikidetza-eremuen inguruko gaietan era aktiboan parte hartzea, gizartea inklusio-eremutzat hartuz. Hori dela eta, «Herritartasunerako Hezkuntza» Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hezkuntza-politikaren eremuan kokatuta dago. Politika hori Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren lehentasunezko lerroetan zehazten da, eta inklusio-eskolako hezkuntza hartzen du ardatz nagusitzat.

Herritartasuna gauzatzeko, gai kolektiboekiko lotura sentitu behar da, eta kontuan hartu behar da gizarte-arazoek gurekin zerikusirik badutela, bai bertakoek, bai eta globalek ere. «Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza» proposatzean, pertsonen sozializazio-prozesuetan esku hartzeko beharra onartzen da. Esku-hartze horren bidez, pertsona horiei gizartea hautematen, ulertzen eta hartan jarduteko ahalmenak jorratzen lagundu nahi zaie. Izan ere, gizarte demokratiko batean bizitzea ez da nahikoa horren printzipioen arabera jarduteko: subiranotasuna erabiltzen harremanen bidez ikasten da. Hori dela eta, «Herritartasunerako Hezkuntza» ez da doktrinamenduaz baliatuko gizarte-ordenara era erosoan egokitzea laguntzen duten balio aldaezinak zabaltzeko. Aitzitik, autonomiaren eta solidaritatearen arteko tentsioa, gizarteratzearen eta norbanakoaren ahalmenak jorratzeko prozesuaren arteko tentsioa eta arrazionaltasunaren eta sormenaren arteko tentsioa bultzatu behar ditu, gizarte demokratikoan bizitzean sortzen diren kontraesanak gainditzea sustatzeko. Hori lortzeko, banakako eta taldeko gogoeta-eremu bat sortzeko ahaleginak egiten ditu; errealitateari kritikoki aurre egiteko balioko duten balio-printzipioak arrazionaltasunez eta autonomiaz sortzea bultzatuko duen eremua. Beharrezkoa da bizikidetzarako irizpideak sortzea bultzatzea honako balio hauek indartzeko: justizia, solidaritatea, lankidetza edo gainerako pertsonak zaintzea, erantzukizuna, parte-hartzea eta errespetua.

Ondorioz, helburuek, edukiek eta ebaluazio-irizpideek herritartasun-proiektu hau zenbait gizarte-eremutara zabaltzen dute: bizikidetza, parte-hartzea, aniztasuna, generoa, demokrazia. Helburuek eremu horiek

tanto en las aulas como en la gestión y participación en el centro. Por eso, los elementos que conforman el presente currículum obedecen principalmente a un principio claro y sencillo: una competencia se alcanza ejerciendo las capacidades que la conforman. Para que sea factible, habrá que poner especial atención en crear situaciones de aprendizaje propicias mediante la utilización de metodologías y técnicas adecuadas. Solo así fijaremos los marcos de referencia que permitan a cada persona elegir y construir su identidad o sus múltiples identidades y desarrollar sus vínculos sociales; aprender a convivir en sociedades democráticas, es decir, a ejercer la ciudadanía, aprender a dialogar, a estar con la otra persona y a valorarla; aprender a tomar decisiones y elegir entre opciones múltiples. En esta propuesta, el ejercicio de la ciudadanía se entiende como la participación de forma activa en los asuntos del espacio social, cultural, económico, político y de convivencia que constituye la sociedad, caracterizado como un espacio de inclusión. Con ello «Educación para la Ciudadanía» se sitúa de lleno en el marco de la política educativa del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco definida en las líneas prioritarias de la Dirección de Innovación Educativa, uno de cuyos ejes es la educación en una escuela inclusiva.

El ejercicio de la ciudadanía requiere sentir la implicación en los asuntos colectivos y comprender que los problemas sociales nos atañen, desde los locales a los globales. Desde el momento en que se plantea la «Educación para la ciudadanía y los Derechos Humanos» se asume la necesidad de intervenir en los procesos de socialización de las personas para acompañarlas en el desarrollo de sus capacidades de percibir, comprender y actuar en sociedad, porque no es suficiente vivir en una sociedad democrática para actuar según los principios en que ésta se basa: el ejercicio de la soberanía se aprende en interacción. Por ello, en el terreno escolar la «Educación para la ciudadanía» no debe, ni mucho menos, buscar el adoctrinamiento mediante la mera transmisión de valores inamovibles que contribuirían a una acomodación al orden social, sino que debe estimular la tensión entre autonomía y solidaridad, entre socialización y proceso de desarrollo de las capacidades individuales, entre racionalidad y creatividad, para estimular la superación de las contradicciones de la vida en la sociedad democrática. Para lograrlo, trata de favorecer la creación de un ámbito de reflexión individual y colectiva que permita elaborar racional y autónomamente principios de valor que sirvan para enfrentarse críticamente con la realidad. Es preciso favorecer la creación de criterios de convivencia que refuercen valores como la justicia, la solidaridad, la cooperación o el cuidado de las demás personas, responsabilidad, participación, respeto.

Consecuentemente los objetivos, contenidos y criterios de evaluación despliegan este proyecto de ciudadanía en diferentes espacios sociales: convivencia, participación, diversidad, género, democracia. Los objetivos

islatzen dituzte guztiak elkarren artean nahasiz, praktikan bereizi ezin diren alderdiak baitira; halere, helburuek joera garbia dute eremu bakoitza bereziki landuko dela bermatzeko. Hori guztia ebaluazio-irizpideekin osatzen da; horien adierazleetan, helburuei dagozkien ikaskuntzak zehazten dira. Hala eta guztiz ere, horiek malgutasunez aplikatuko dira ikaskuntza ebaluatzerakoan. Hala, prozesua bera ez dugu mugatuko, ezta aurretik ezarritako bide batetik nahierara eramango ere, bestela baldintzen arabera emankorrago suerta litezken beste bide batzuk aztertzea eragotziko bailitzateke.

Edukiak hiru eduki multzotan banatzen dira. Horietan, kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak ikuspegi integratu batetik jorratuko dira. 1. eduki multzoak, «Gizabanakoak eta pertsona arteko harremanak eta harreman sozialak» izenekoak, honako alderdi pertsonal hauek lantzen ditu: autonomia, pribatutasuna eta nortasuna, eta norberaren eta gainerako pertsonen emozioak onartzea. Proposatzen denaren arabera, harreman-ereduak honako oinarri hauek izango ditu: pertsona guztien duintasuna onartzea, iritzi eta sinesmen desberdinak izan arren besteak errespetatzea, eta aniztasuna eta pertsonen eskubideak onartzea. Eguneroko egoeretatik abiatuta, gizonezkoen eta emakumezkoen artean familian eta lan-munduan egon behar duen berdintasuna lantzen da. Norberaren erantzukizunak norberak bere gain hartzea garrantzi handiko gaia da, eta autonomia pertsonalarekin lotuta dago; erantzukizunez jokatu behar da, bai norberaren ikaskuntzan, bai eta ikasgelan eta ikastetxean ere. Baina erantzukizun hori ager dadin, helduen borondatea eta konfiantza behar da ikasleek har ditzaketen erabakietan eta parte hartzeko eta erantzukizunak gauzatzeko dituzten bideetan. Haur-hezkuntzaren garaitik hasita, gelako bilerek eztabaidatzen, ideiak proposatzen, gainerakoei aditzen eta akordioak lortzen ikasteko balio dute.

2. eduki multzoak, «Komunitatean bizitzea» izenekoak, honako hauek lantzen ditu: ingurunearekiko harremanetan elkarrekin bizitzea; gizarte demokratikoaren oinarri diren gizabidezko balioak (errespetua, tolerantzia, solidaritatea, justizia, berdintasuna, elkarri laguntzea, lankidetza eta bakearen kultura); gure taldeetan bizikidetzari eta gatazkei aurre egiteko erak (familia, ikastetxea, lagunak, herriak); eta pertsona bakoitzak bere taldean dagozkion eskubide eta betebeharrak betetzea, aniztasuna identifikatuz, bereizkeria baztertuz, partehartzea eta horretarako bideak aintzat hartuz eta talde eta batzordeetan parte hartuz. Halaber, hurbileko ingurunean dagoen kultura- eta erlijio-aniztasuna onartuta, eta, eskubide eta betebeharrei dagokienez, emakumezko eta gizonezko guztien arteko berdintasuna onartuta, ohitura eta bizimodu desberdinak kritikoki errespeta daitezen lan egin daiteke, eta marjinazio-, bereizkeria- eta gizarte-bidegabekeriako egoerak antzemateko eta baztertzeko elementuak lor daitezke.

plasman estos espacios combinándolos, dado que se trata de aspectos inseparables en la práctica, aunque a la vez muestran una clara direccionalidad con el fin de garantizar el tratamiento específico de cada uno. Esto se completa con unos criterios de evaluación en cuyos indicadores aparecen explicitados los aprendizajes correspondientes a los objetivos. No obstante, su aplicación deberá entenderse con flexibilidad a la hora de evaluar el aprendizaje para evitar encorsetar el proceso mismo conduciéndolo arbitrariamente por un itinerario preestablecido e impidiendo con ello explorar otros itinerarios más fructíferos de acuerdo a las condiciones concretas en que se desarrolle.

Los contenidos se organizan en tres bloques en los que los conceptos, los procedimeintos y las actitudes se abordan desde una perspectiva integrada. El bloque 1, Individuos y relaciones interpersonales y sociales, trata los aspectos personales : la autonomía, la privacidad y la identidad, el reconocimiento de las emociones propias y de las demás personas. Propone un modelo de relaciones basado en el reconocimiento de la dignidad de todas las personas, del respeto al otro aunque mantenga opiniones y creencias distintas a las propias, de la diversidad y los derechos de las personas. A partir de situaciones cotidianas, se aborda la igualdad de hombres y mujeres en la familia y en el mundo laboral. Un aspecto prioritario, relacionado con la autonomía personal, es siempre la asunción de las propias responsabilidades con respecto a su aprendizaje, su aula y su centro educativo, pero para que esta asunción se dé, tiene que haber voluntad y confianza de los adultos, con respecto a las decisiones que pueda tomar el alumnado y canales para participar y ejercer las responsabilidades. Las asambleas de aula, desde la etapa infantil, sirven para aprender a debatir a proponer ideas, a escuchar a los demás y a buscar acuerdos.

El bloque 2, La vida en comunidad, trata de la convivencia en las relaciones con el entorno, de los valores cívicos en que se fundamenta la sociedad democrática ( respeto, tolerancia, solidaridad, justicia, igualdad, ayuda mútua, cooperación y cultura de la paz), de la forma de abordar la convivencia y el conflicto en los grupos de pertenencia ( familia, centro escolar, amigos, localidad) y del ejercicio de los derechos y deberes que corresponden a cada persona en el seno de esos grupos, identificando la diversidad, rechazando la discriminación, valorando la participación y sus cauces y tomando parte en los diversos grupos o comisiones. Asímismo, desde el reconocimiento de la diversidad cultural y religiosa presente en el entorno inmediato y asumiendo la igualdad de todas las mujeres y hombres en cuanto a derechos y deberes, se puede trabajar el respeto crítico por las costumbres y modos de vida distintos al propio y permite proporcionar elementos para identificar y rechazar situaciones de marginación, discriminación e injusticia social.

Bukatzeko, 3. eduki multzoak, «Gizartean bizitzea» izenekoak, herritarren gizabideari buruzko planteamendu bat proposatzen du, eta eremu publikoan elkarrekin bizitzea ahalbidetzen duen guztia barnean hartzen du. Gizabidea zera da: bizitza kolektiboan parte hartu nahi duen edozein pertsonak gainerakoekin batera partekatuko dituen funtsezko balio eta moduen etika bat. Herritartasun-izaerak bezala, gizabideak bere barnean hartzen ditu bizikidetza-kultura publiko bat osatzen duten modu eta balio guztiak; horiek, aldi berean, zenbait balio moralen adierazpen dira eta ezinezkoa da horiek gabe elkarrekin bizitzea.

Orain arte esandakoak metodologia-orientabide bat ematen digu jada. Gure ikasleak herritartasuna gauzatzen ikasten duten subjektu aktiboak izan daitezen nahi badugu, horien sozializazioan esku hartzeko erabili beharko ditugun metodologiek parte-hartzea, erabakiak hartzea eta, ondorioz, ardurak hartzea sustatu behar dute. Hori guztia ez da hitzaldien bidez edo era mekanikoan ikasten; behaketaren, jardutearen, azterketaren, debateen eta eztabaidaren bidez baizik, bai eta egunkarietan, telebistan, aldizkarietan, Interneten eta abarretan bildutako informazioa aztertuz ere. Tutoretza- eta bilera-espazioak ere nahitaezkoak dira eskolan sortzen diren gai interesgarriak eta arazo moralak jorratzeko; parte hartzen, eztabaidatzen eta erabakiak hartzen ikasteko balio dute, bai eta gatazkak konpontzen, antolatzen eta bizitza eta eskolako lana kudeatzen ikasteko ere. Alde horretatik, ikasleei, beren kideekin elkarreraginean ari direla, beren aukera berezi eta pertsonalak sortzeko ahalmena ematen dien metodologia oro baliagarria da. Hala, «lankidetza» izeneko epigrafeak hartzen dituen metodologiak nabarmentzen dira, bai eta lankidetza sustatzen duten beste tresna batzuk ere: proiektu bidezko lana, Web-Quest, egunkariak, elkarrekintza-taldeak, literatura-solasaldiak, ikerketa-taldeak, etab. Baina ezinbestekoa da, halaber, jarduera komun hori arrazoizko debate eta eztabaiden bidez gogoeta pertsonalarekin osatzea eta ikuspuntuak trukatzea.

Ebaluazioak behar diren mekanismoez baliatu beharko du metodologia horren erabilerara eta azaldu denaren moduko ikasketa-proposamen batera moldatzeko. Horretarako, orain arteko erarik ohikoenak erabiliko ditu, elkarlan-jarduera, parte-hartzea eta inplikazioa eta gogoeta-jarduera eta jarduera dialogikoa neurtzeko tresnekin batera. Bistakoa da garrantzitsuagoa dela prozesua ebaluatzea emaitza ebaluatzea baino. Hala ez balitz, «Herritartasunerako Hezkuntza» indargabetu egingo genuke, eta gero buruz esan ahal izateko irentsi beharreko doktrina-katalogo bihurtuko baikenuke. Beraz, irakasgai horretan ere, ebaluazioak garrantzizko papera hartzen du, curriculumeko gainerako osagaietatik bereizi ezin dena.

Finalmente, el bloque 3, Vivir en sociedad, propone un planteamiento que tiene que ver con el civismo de los ciudadanos que comprende todo aquello que hace posible una convivencia en el espacio público. El civismo es una ética de mínimos compartibles por cualquier persona que quiera participar en la vida colectiva. Como la condición de ciudadanía, el civismo incluye todos aquellos modos y valores que forman una cultura pública de convivencia, al tiempo que son expresión de unos determinados valores morales, sin los que no es posible la vida en común.

Lo dicho hasta aquí nos ofrece ya una orientación metodológica. Si queremos intervenir en la socialización de nuestro alumnado de manera que sea sujeto activo que aprende a ejercer la ciudadanía, tendremos que valernos de metodologías que potencien la participación, la toma de decisiones y en consecuencia la asunción de responsabilidad. Todo esto no se aprende con discursos ni de forma mecánica, sino mediante observación, práctica, análisis, debate, discusión de información recogida de periódicos, televisión, revistas, Internet, etc. Los espacios de tutoría y asamblea constituyen también momentos insustituibles para abordar los temas de interés y problemas morales que se vivencian en la escuela para aprender a participar, a dialogar y a tomar decisiones, para aprender a resolver conflictos, a organizarse y a gestionar la vida y el trabajo escolar. En esta línea parecen útiles todas aquellas metodologías que ponen en manos del alumnado la posibilidad de elaborar sus propias y personales alternativas en interacción con sus iguales. Así, destacan las metodologías integradas bajo el epígrafe «trabajo cooperativo» y otros instrumentos que potencian la colaboración: trabajo por proyectos, Web-Quest, bitácoras, grupos interactivos, tertulias literarias, grupos de investigación, etc. Pero también se hace imprescindible que esta actividad en común se complemente con la reflexión personal y el intercambio de puntos de vista gracias a los debates y discusiones racionales.

La evaluación deberá adoptar los mecanismos necesarios para adaptarse al uso de esta metodología y a una propuesta de aprendizaje como la expuesta. Para ello se valdrá de las formas hasta ahora más usuales combinadas con herramientas de medición de la actividad colaborativa, de la participación e implicación, así como de la reflexiva y dialógica. Es evidente la prioridad de evaluar el proceso más que el resultado. De lo contrario, desvirtuaríamos la «Educación para la ciudadanía» convirtiéndola en una especie de catálogo doctrinario que engullir para luego recitar. Por tanto, también en esta materia la evaluación adquiere un papel relevante e inseparable del resto de elementos del currículum.

## ARLOAREN EKARPENA OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO

«Herritartasunerako Hezkuntzak» gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna lortzen laguntzen du. Garrantzi handia ematen die pertsonen nortasunari eta, bizikidetza positibo bat eta autoestimua lantzeko, beste pertsona batzuekin ezarritako harremanei. Hezkuntza horrek berdintasunezko genero-harremanen eta partehartzearen alde egiten du; aniztasuna baliotzat hartzen du, eta eskubideak eta betebeharrak eta Giza Eskubideak azpimarratzen ditu. Hala, gizarte- eta hiritar-gaitasunarekin duen konpromisoa erakusten du. Gainera, lankidetzak ere gizabanakoak elkartzea errazten du; horrekin batera, gizarte-harremanak sorrarazten ditu, eta gaitasun hori lortzeko laguntza indartzen.

Era berean, lankidetzak ikasten ikasteko gaitasuna garatzen laguntzen dio ikasleari, honako hauekin batera eginez gero: zalantzetatik abiatutako gogoeta eta balioespen pertsonalarekin, gertaeren azterketa eta analisiarekin, rol jokoekin eta argudiatze-arauen menpeko aukerekin. Horiek guztiek pentsamendua era sistematiko eta zorrotzean erabiltzeko prestatzen dituzte ikasleak, bai eta berrelikatze-ariketak egiteko eta beren eguneroko jarduera beste dimentsio batzuetara estrapolatzeko ere; hala, norberak zer dakien jakingo dute eta, horrekin, norberaren gaitasunaz ohartuko dira. Gainera, ariketa horietan trebatzeak ikaslearen ikaskuntza autoerregulatzeko gaitasuna indartzen du; izan ere, horrek debateetako eta lankidetzako alderatze dialogikoan eraikitako irizpideekin lotzeko aukera ematen dio ikasleari. Hori curriculumeko edozein alorretarako ekarpen adierazgarria eta baliotsua denez, ikuspuntu kognitibotik ere, irakasgai honek garrantzi handia hartzen du.

Zalantza moralak, gertaerak eta beste aukera batzuk aurkezteak ongi eratutako judizio moral pertsonalak eraikitzen laguntzen du; hau da, norberaren autonomia eta norberaren kabuz aritzeko gaitasuna bultzatzen ditu. Bizikidetzarako eta lankidetzarako erabilgarriak diren trebetasun sozialak dira, pertsona autonomo eta aktiboen arteko berdintasunezko harremanak sustatzen baitituzte. Jarrera pertsonal bat hartzeko eta hori arrazoitzeko eskatzeak interpretazio eta gogoeta pertsonaletan oinarritutako judizio autonomo bat eraikitzen laguntzen du epe ertain eta luzera.

Beste alde batetik, arrazoizko debateetan eta eztabaidetan aritzeak eta lankidetzan aritzeak hizkuntza-komunikaziorako gaitasunari laguntzen diote, entzuten, azalpenak ematen eta argudiatzen trebatzea eskatzen baitute. Sentimenduak, ideiak eta iritziak adierazteak ere, irakasgai hauetan ezinbestekoa baitira, gaitasun hori lortzen laguntzen du; izan ere, horretarako, hitzezko eta idatzizko hizkuntza erabili behar da, eta hainbat iturritatik eta, bereziki, publizitatetik eta komunikabideetatik iritsitako mezu esplizituen eta inplizituen balioespen

## CONTRIBUCIÓN DEL AREA A LA ADQUISICIÓN DE LAS COMPETENCIAS BÁSICAS

La «Educación para la ciudadanía» contribuyen de manera prioritaria a la adquisición de la competencia social y ciudadana. La referencia a la identidad personal y a su relación con otras identidades para forjar una convivencia positiva, la autoestima, la apuesta por unas relaciones de género equitativas y por la participación, la diversidad entendida como un valor, la insistencia en los derechos y deberes, así como en el respeto a los Derechos Humanos dicen por sí solas hasta qué punto se comprometen con dicha competencia. Si esto es verdad, no lo es menos que las formas de trabajo colaborativo favorecen el encuentro entre las individualidades y con ello el surgimiento de lazos sociales, reforzando su contribución a la adquisición de la competencia.

Paralelamente, el trabajo colaborativo junto a la reflexión y valoración personal a partir de dilemas, estudio y análisis de casos, juegos de rol así como alternativas sometidas a las reglas de la argumentación contribuyen al desarrollo de la competencia para aprender a aprender puesto que predisponen al alumnado a la utilización sistemática y rigurosa del pensamiento en un ejercicio de retroalimentación y extrapolación hacia otras dimensiones de su actividad diaria que le permiten tomar conciencia de lo que sabe y con ello una idea cabal de su competencia personal. Además, entrenarse en este ejercicio potencia la capacidad de autorregulación del aprendizaje ya que ofrece al alumnado la posibilidad de referirlo a criterios construidos en la confrontación dialógica de los debates y del trabajo colaborativo. Es esta una aportación significativa y valiosa para cualquier área del currículum, lo que confiere a esta materia un papel destacable también desde el punto de vista cognitivo.

El planteamiento de dilemas morales, casos y otras alternativas ayuda a la construcción de juicios morales personales bien articulados, lo que equivale a decir que colabora al crecimiento para la autonomía e iniciativa personal. Se trata de habilidades sociales útiles para la convivencia y la colaboración al potenciar una relación igualitaria entre personas autónomas y activas. La exigencia por una toma de posición personal y su justificación potencian a medio y largo plazo la construcción de un juicio autónomo basado en interpretaciones y reflexiones personales.

Por otra parte, el uso del debate y la discusión racional, así como el trabajo colaborativo, contribuyen a la competencia en comunicación lingüística, porque exige ejercitarse en la escucha, la exposición y la argumentación. La comunicación de sentimientos, ideas y opiniones, imprescindibles para lograr los objetivos de estas materias, al utilizar tanto el lenguaje verbal como el escrito, la valoración crítica de los mensajes explícitos e implícitos de fuentes diversas y, particularmente, en la publicidad y en los medios de comunicación, también

kritikoa egin behar da. Azkenik, gizartearen analisiari dagozkion termino eta kontzeptuak ezagutzeak eta erabiltzeak ere hiztegia aberasten laguntzen dute.

Interneti esker lortzen ditugun tresna digitalak metodologia bati jarraituz erabiltzeak nabarmenki lagunduko du informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna garatzen. Jakintzaren gizartearen eskakizunak kontuan hartuta, gaitasun hori lortzeko, ezinbestekoa da beste alor batzuekin lankidetzan aritzea; batez ere, gaitasun formal bat bakarrik ez denean, hau da, erabiltzeko trebakuntza bakarrik lortu nahi ez duenean; aitzitik, tresna digitalen inguruko ikuskera berriak harremana, parte-hartze irekia eta ezagutza-trukea ditu oinarri. Tresna horiei ahal den etekin handiena ateratzeko, lankidetza, sare digital horizontalak eta debateak osagarri aproposak dira; horiek, jarraibide digitaletatik abiatuta, informazioaren trataera eraginkorra eta selektiboa egiten lagunduko dute.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunari egindako ekarpena bermatuta dago; izan ere, gizarteari eta naturari dagokienez, garapen iraunkorra aintzat hartzen da helburuetan eta ebaluazio-irizpideetan. Garapen iraunkorrak honako hau esan nahi du: ingurunera aldez aurretiko kontzeptualizazio batekin hurbiltzea; hain zuzen ere, ikasleari era autonomoan eta errespetuz jarduteko aukera emango diona. Herritartasunerako ezinbestekoak diren zenbait alor gehitzen ditu kontzeptualizazio horrek: osasuna, kontsumoa, ekoizpena, zientzia, teknologia, balio sozialak etab. «Herritartasunerako Hezkuntzak» gogoeta eta ekintzen arteko tentsioa dakar, eta natura-ingurunearekin harremanak izateko beharrezkoa da hori; izan ere, harreman hori etengabe interpretatzen jarraitzeko laguntza ematen du, gizabidezko balioetan oinarritutako esku-hartze batera egokitutako eremu batean koka dadin. Beste alde batetik, informazioa paradigma zientifiko batetik interpretatzeak pentsamendu zientifikoa garatzen lagunduko du. Horri esker, arazo teknikoetarako irtenbide teknikoak proposatzerakoan erabiliko da pentsamendu hori, eta, teknikoak ez diren arazoei konponbideak bilatzerakoan, testuinguruaren azterketa zorrotza egingo da erabakiak hartu aurretik. Era berean, arrazoibidea eta iritzien elementuak azaltzeko analisi sistematikoak eta elementuetatik abiatuta logika-legeen araberako osatze-lan sintetikoak egiteak lagundu egingo die ikasleei eguneroko bizitzako egoera konplexuei aurre egiten eta, oro har, arazoak konpontzeko prozesuan.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna ere aintzat hartzen da. Garapen iraunkorra ikuspegi sozialetik ulertuta, sortze-lan kulturalak eta artistikoak gogoetarako eta ekintzarako objektu bihurtzen dira, eta ondare baliotsutzat hartzen dira. Era berean, kultura eta artea jarduteko eta hobetzeko eremu ezin hobea dira balioei eta pertsona arteko komunikaziorako trebetasunei buruzko

ayudan a la adquisición de la competencia. Finalmente, el conocimiento y el uso de términos y conceptos propios del análisis de lo social, posibilitan el enriquecimiento del vocabulario.

La utilización metodológica de herramientas digitales propias de Internet contribuirá de forma notable al desarrollo del tratamiento de la información y competencia digital. Teniendo en cuenta las exigencias de la sociedad del conocimiento, resulta imprescindible cooperar con otras áreas en adquirir esta competencia, máxime cuando no se trata solo de una competencia formal, es decir, que busca el adiestramiento en el uso, sino que la nueva concepción presente en las herramientas digitales se basa en la idea de interactividad, participación abierta y compartir el conocimiento. El complemento adecuado para sacarle el mayor rendimiento posible es el trabajo colaborativo y el uso de redes digitales horizontales y los debates, que ayudarán en un tratamiento efectivo y selectivo de la información a partir de pautas digitales.

La contribución a la competencia en cultura científica, tecnológica y de la salud queda asegurada desde el momento en que el desarrollo sostenible en vertiente social y natural forman parte de los objetivos y criterios de valuación. Desarrollo sostenible significa acercarse al entorno provisto de una conceptualización previa que capacita al alumnado para actuar en él de manera autónoma y leerlo en clave de respeto, e incorpora una serie de ámbitos imprescindibles para la ciudadanía: salud, consumo, producción, ciencia, tecnología, valores sociales, etc. «Educación para la ciudadanía» aporta una tensión entre reflexión y acción necesaria para relacionarse con el medio natural ya que ayuda a reinterpretar constantemente esa misma relación para situarla en el marco apropiado a una intervención basada en valores cívicos. Por otra parte, la interpretación de informaciones a partir del paradigma científico ayudará a desarrollar el pensamiento científico y utilizarlo para proponer soluciones técnicas en la resolución de problemas técnicos, así como la toma de decisiones basada en una lectura rigurosa del contexto para proponer alternativas en la resolución de problemas de carácter no técnico. De igual manera, el análisis sistemático de argumentaciones y opiniones para desvelar sus elementos, así como la tarea sintética de componer a partir de elementos conforme a leyes lógicas ayudarán al alumnado a enfrentarse a situaciones complejas de la vida cotidiana y en general al proceso de resolución de problemas.

La competencia en cultura humanística y artística no se queda al margen. El desarrollo sostenible es entendido también desde la perspectiva social, de manera que las creaciones culturales y artísticas se convierten en objeto de reflexión-acción consideradas como patrimonio valioso. De igual manera, la educación en valores y en habilidades comunicativas interpersonales encuentra

hezkuntzarako; batez ere, beste herri batzuen kulturekiko eta adierazpen artistikoekiko jarrerarako.

HELBURUAK

Etapa honetan, Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzak honako gaitasun hauek lortzea du helburu:

1. Norberaren nortasuna, ezaugarriak eta esperientzia pertsonalak ezagutu eta onartzea, haien pribatutasun-espazioa eta guzti, eta, halaber, gainerakoekiko desberdintasunak errespetatzea eta autoestimua indartzea, bizitza pertsonaleko hainbat alderdiri era positiboan aurre egiteko.

2. Afektibitatea lantzea eta sentimenduak eta emozioak adieraztea, eta, hori egiteko, kulturen arteko komunikaziorako trebetasunak eta trebetasun sozialak eskuratzea; betiere, eguneroko bizitzan eta talde-harremanetan –gelan, ikastetxean eta ingurune hurbilean– autonomiaz eta arduraz jokatzeko.

3. Bizikidetza-arauak proposatzea, ezartzea eta betetzea, eta gatazka lantzeko elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea, guztien artean bizikidetza osasuntsua eraikitzeko.

4. Inguruko erreferentzia-taldeetan (familia, eskola, auzoa, herria) lankidetzazko eta erantzukizunezko jarreraz laguntzea; horretarako, norberaren eta gainerakoen ekarpenak aintzat hartzea eta horien dinamikak aztertzea, gainerakoei laguntzen, berekoia ez izaten eta lankidetzan aritzen ikasteko, herritar gisa antolatzeko eta parte hartzeko bideak ezagutzeko, eta baita horiek dakartzaten betebeharrak eta erantzukizunak ikasteko ere.

5. Gizartearen aniztasuna onartzea eta aniztasun horrek bizikidetza aberasten duela aitortzea, eta, halaber, beste herri batzuen ohiturak eta bizimoduak errespetatzea, herrien arteko berdintasunaren ikuspegitik.

6. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta haurren eskubideei buruzko Itunean jasotako eskubide eta betebeharrak ezagutzea eta balioestea, eta horien oinarri diren balioak ezagutzea; horiek jokaera pertsonal eta kolektiboak etikoki balioesteko irizpidetzat hartzea.

7. Komunitate bateko kide sentitzea, horren dinamikak aztertzea eta norberaren eta gainerakoen ekarpenak aintzat hartzea, elkarren artean ulertzeko eta solidaritatea eta kohesio soziala errazteko.

8. Bidegabekeria- eta bereizkeria-egoerak antzematea eta aztertzea, hala nola honako arrazoi hauengatik gertatzen direnak: generoagatik, jatorriagatik, etniagatik, sinesmenengatik, desberdintasun sozialengatik eta pertsonalengatik, orientazio afektiboagatik edo

en la cultura y el arte un terreno de actuación y mejora excepcional, sobretodo en lo que hace a la actitud hacia culturas y manifestaciones artísticas de otros pueblos.

OBJETIVOS

La enseñanza de la Educación para la ciudadanía y los Derechos Humanos en esta etapa tendrá como finalidad el logro de las siguientes competencias :

1. Conocer y aceptar la propia identidad, las características y experiencias personales con su especio de privacidad, respetando las diferencias con los otros y desarrollando la autoestima, para afrontar positivamente numerosos aspectos de su vida personal

2. Desarrollar la afectividad y expresar los sentimientos y las emociones, mediante la adquisición de habilidades comunicativas interculturales y sociales para actuar con autonomía y responsabilidad en la vida cotidiana y en las relaciones de grupo, en el aula, el centro y el entorno próximo.

3. Proponer, elaborar y respetar las normas de convivencia, utilizando el diálogo y la mediación en el tratamiento del conflicto, para entre todos construir una vida saludable en común.

4. Colaborar con actitud cooperativa y responsable en la vida de los grupos de referencia próximos (familia, escuela, barrio, localidad), valorando las aportaciones propias y ajenas, analizando sus dinámicas, para aprender a ayudar, a compartir y a cooperar con los demás y para conocer diversas formas de organización y participación ciudadana junto con el ejercicio de deberes y responsabilidades que conlleva.

5. Reconocer la diversidad como enriquecedora de la convivencia, mostrar respecto por las costumbres y modos de vida de poblaciones distintas a la propia en situación de igualdad.

6. Conocer y valorar los derechos y obligaciones que se derivan de las Declaración Universal de Derechos Humanos y la Convención sobre los derechos del niño, identificando los valores que los fundamentan, aceptándolos como criterios que sirven para valorar éticamente las conductas personales y colectivas.

7. Sentirse miembro de una comunidad, analizando sus dinámicas y valorando las aportaciones propias y ajenas, para favorecer el mutuo entendimiento, la solidaridad y la cohesión social.

8. Identificar y analizar las situaciones de injusticia y discriminación existentes por razón de género, origen, etnia, creencias, diferencias sociales y personales, orientación afectivo-sexual o de cualquier otro tipo y rechazar aquellas las actitudes negativas que impiden

sexualagatik edo beste edozein arrazoirengatik; eta jarrera negatiboak eta Giza Eskubideetan oinarritutako bizikidetza bidezkoa eta berdintasunezkoa galarazten dutenak baztertzea.

9. Pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna defendatzea, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko eskubide-berdintasuna balioestea, bereizkeria dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak baztertzea, eta berdintasunezko jarrerak bultzatzea pertsonaren garapen integrala bermatzeko.

10. Ingurumenaren egoeraz ohartzea eta kontsumo osasungarriko eta ingurune hurbila —animaliak zaintzea eta errespetatzea ere barne dela— zaintzeko eta errespetatzeko jarrera arduratsuak indartzea, ingurunea erantzukizunez kudeatzen parte hartzeko.

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Gizabanakoak eta pertsonen arteko harremanak eta harreman sozialak

– Banakoaren nortasuna: ezaugarri fisikoak, kulturalak, sozialak, erlijiozkoak. Pribatutasuna. Bakoitzak bere buruaz duen kontzeptua eta balioespena. Desberdintasuna errespetatzea.

– Sentimenduak eta emozioak antzematea eta adieraztea.

– Pertsonen arteko begirune- eta lankidetza-harremanak.

– Enpatia.

– Kulturen arteko komunikazio-trebetasunak.

– Gatazkak eraldatzea, elkarrizketa eta bitartekotza (aktiboki entzutea, modu asertiboan komunikatzea...)

– Giza Eskubideak eta haurren eskubideak.

– Eskubideen, erantzukizunen eta betebeharren arteko erlazioak.

– Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko bereizkeria-egoerak antzematea.

– Gizonezkoen eta emakumezkoen eskubide-berdintasuna balioestea familian eta lan- eta gizarte-munduan.

2. eduki multzoa. Komunitatean bizitzea

– Eguneroko bizitzako arazoak konpontzea: erabakiak hartzea.

– Gizabidezko balioak gizarte demokratikoan: errespetua, tolerantzia, solidaritatea, justizia, lankidetza eta bakearen kultura.

– Gizabidezko balioak ingurune hurbileko bizikidetza- eta gatazka-egoeretan aplikatzea (familia, ikastetxea, lagunak, herria). Errespetu- eta solidaritate-jarrerak indartzea eta elkarrizketa eta bitartekotza balioestea bizikidetza-arazoak konpontzeko, bai eta gainerako pertsonekin sortutako interes-gatazkak konpontzeko ere.

una convivencia justa e igualitaria basada en los Derechos Humanos.

9. Defender la igualdad de derechos y oportunidades de todas las personas, valorar la igualdad de derechos entre hombres y mujeres, rechazar los estereotipos, prejuicios y roles que supongan discriminación, promoviendo una actitud igualitaria para garantizar el desarrollo integral de la persona.

10. Tomar conciencia de la situación del medio ambiente y desarrollar actitudes de consumo saludable y responsable, y de respeto y cuidado del entorno próximo, incluyendo el cuidado y respeto hacia los animales, para participar responsablemente en su gestión.

CONTENIDOS

Bloque 1. Individuos y relaciones interpersonales y sociales

– Identidad personal: características físicas, culturales, sociales, religiosas. La privacidad. Autoconcepto y autovaloración. Respeto a la diferenci

– Sentimientos y emociones identificación y expresión .

– Relaciones interpersonales respetuosas y colaborativas.

– Empatía.

– Habilidades comunicativas interculturales.

– Transformación del conflicto, diálogo y mediación ( escucha activa, comunicación asertiva,..)

– Derechos Humanos y derechos de la infancia.

– Relaciones entre derechos, responsabilidades y obligaciones.

– Identificación de situaciones de discriminación entre mujeres y hombres.

– Valoración de la igualdad de derechos de hombres y mujeres en la familia y en el mundo laboral y social.

Bloque 2. La vida en comunidad

– Resolución de problemas de la vida cotidiana: Toma de decisiones

– Valores cívicos en la sociedad democrática: respeto, tolerancia, solidaridad, justicia, cooperación y cultura de la paz.

– Aplicación de los valores cívicos en situaciones de convivencia y conflicto en el entorno inmediato (familia, centro escolar, amistades, localidad). Desarrollo de actitudes de respeto y solidaridad y valoración del diálogo y la mediación para solucionar los problemas de convivencia y los conflictos de intereses en la relación con las demás personas.

– Parte hartzeko eskubidea. Parte hartzeko erak eta eskubideak eta erantzukizunak nork bere gain hartzea.

– Talde bateko kide izateagatik dagozkion eskubideak eta betebeharrak erantzukizunez betetzea, eta talde horietako lanetan eta erabakietan parte hartzea.

– Aniztasun soziala, kulturala eta erlijio-aniztasuna. Norberarengandik desberdinak diren ohiturak eta bizimoduak kritikoki errespetatzea. Marjinazio-egoerak, bereizkeria-egoerak eta gizarte-bidegabekeriekin lotutako egoerak antzematea.

3. eduki multzoa. Gizartean bizitzea

– Bizikidetza soziala. Bizikidetzarako, beharrezkoa da arauak ezartzea.

– Ondasun komunak eta zerbitzu publikoak ezagutzea, errespetatzea eta zaintzea.

– Gizabidezko ohiturak. Osasunarekiko, kontsumo arduratsuarekiko eta ingurumenarekiko erantzukizuna. Animaliak errespetatzea.

– Gizartean parte hartzeko egiturak eta bideak.

– Ikastetxean eta ingurune hurbilean ikasleek parte hartzeko foroak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Norberaren eta kideen desberdintasunak eta ezaugarri pertsonalak errespetatzea, bai eta pribatutasunerako eskubidea ere; eta norberaren ekintzen ondorioak balioestea eta horien erantzukizuna onartzea.

1.1. Ea bakarra izatera daramaten ezaugarriak antzematen dituen.

1.2. Ea onartzen dituen bere buruaz gehien gustatzen zaiona, bere lorpenak eta bere zailtasunak.

1.3. Ea onartzen duen bere ekintzen ondorioen erantzukizuna.

1.4. Ea onartzen dituen bere inguruko pertsonen sentimendu eta emozioak, bai eta horiek pribatutasuna gordetzeko duten eskubidea ere.

1.5. Ea jarrera konstruktiboz eta errespetuzkoaz egiten dien aurre gainerakoen jokaerei.

2. Eguneroko bizitzan eta taldeko harremanetan autonomiaz eta erantzukizunez komunikatzea, adieraztea eta jokatzea.

2.1. Ea antzematen dituen eguneroko egoeretako sentimendu positiboak eta negatiboak: bere buruarekin, familiarekin, ikastetxearekin, lagunekin.

2.2. Ea erabiltzen dituen hitzezko komunikaziorako eta hitzik gabekorako trebetasunak: aktiboki entzuten duen; bestearen lekuan jartzen den; beste ikuspuntu batzuk errespetatzen dituen; sentimenduak eta ideiak errespetuz adierazten dituen.

– El derecho de participar. Formas de participación y asunción de derechos y responsabilidades.

– Responsabilidad en el ejercicio de los derechos y los deberes individuales que le corresponden como miembro de los grupos en los que se integra y participación en las tareas y decisiones de los mismos.

– La diversidad social, cultural y religiosa. Respeto crítico por las costumbres y modos de vida distintos al propio. Identificación de situaciones de marginación, desigualdad, discriminación e injusticia social.

Bloque 3. Vivir en sociedad

– La convivencia social. Necesidad de dotamos de normas para convivir.

– Identificación, respeto y cuidado de los bienes comunes y de los servicios públicos

– Hábitos cívicos. Responsabilidad con la salud, el consumo responsable y el medio ambiente. El respeto hacia los animales.

– Estructuras y formas de participación en sociedad.

– Foros participativos del alumnado en el centro y el entorno próximo.

CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Mostrar respeto por las diferencias y características personales propias y de sus compañeros y compañeras junto a su derecho a la privacidad, valorar las consecuencias de las propias acciones y responsabilizarse de las mismas.

1.1. Identifica las características que le hacen ser única

1.2. Reconoce lo que más le gusta de sí misma, sus logros y dificultades

1.3. Se responsabiliza de las consecuencias de sus acciones.

1.4. Reconoce los sentimientos y emociones en las personas que le rodean y su derecho a mantener un ámbito privado.

1.5. Adopta actitudes constructivas y respetuosas ante las conductas de los demás.

2. Comunicarse, expresarse y actuar en la vida cotidiana y en las relaciones de grupo con autonomía y responsabilidad.

2.1. Identifica los sentimientos positivos y negativos que siente en situaciones cotidianas: consigo misma, con la familia, en el centro, con los amigos.

2.2. Utiliza las habilidades de comunicación verbal y no verbal: escuchar activamente, ponerse en el lugar del otro, respetar otros puntos de vista, comunica con respeto sentimientos e ideas

2.3. Ea bake- eta solidaritate-harremanak ezartzen dituen.

2.4.Ea eguneroko jardueran, autonomiaz eta erantzukizunez jarduten duen, bai eskolan, bai familian, bai eta ingurune hurbilean ere.

3. Bizikidetza-arauak proposatzea, ezartzea eta betetzea, gatazkari aurre egiteko eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzeko.

3.1. Ea bizikidetza-arauak betetzen dituen eta, taldean, giro ona lortzen laguntzen duen.

3.2. Ea gatazkak sorrarazten dituzten egoerak hautematen laguntzen duen eta horrelakorik ez sortzeko jokaera egokiak proposatzen parte hartzen duen.

3.3. Ea bere ingurune hurbileko gatazka-egoera bat deskribatzen duen eta konponbideak edo alternatibak bilatzeko estrategiak jartzen dituen martxan.

3.4. Ea elkarrizketaz baliatzen den desadostasunak gainditzeko eta akordioetara iristeko.

3.5. Ea erakusten duen, ohiko jarreran eta hizkeran, errespetua eta balioespen kritikoa eta konstruktiboa aintzat hartzen dituela.

4. Gertuko erreferentzia-taldeen jardueretan parte hartzea (familia, eskola, auzoa, herria), lankidetza-jarrerarekin eta erantzukizunez.

4.1. Ea laguntza eskatzen duen behar duenean, eta behar duenari laguntza ematen dion.

4.2. Ea ideiak eta ekintzak proposatzen dituen, eta taldean parte hartzen duen denen artean erabakitako helburua lortzeko.

4.3. Ea bere iritziak errespetuz arrazoitzen eta defendatzen dituen.

4.4. Ea erantzukizunez jarduten duen ikasgelan, ikastetxean edo ingurune hurbilean egokitutako lanetan.

4.5. Ea parte hartzen duen bere ingurune hurbila hobetzen laguntzen duten jardueretan.

5. Gizarteko aniztasuna onartzea, positiboki balioestea eta norberarenengandik desberdinak diren gainerako pertsonen eta herrialdeen ohiturak eta bizimoduak errespetatzea.

5.1. Ea beste kultura batzuen alderdi positiboak onartzen dituen.

5.2. Ea informazioa biltzen duen hainbat talde kulturali buruz.

5.3. Ea beste kulturak eta bizimoduak errespetatzen dituen.

5.4. Ea parte hartzen duen kultura bakoitzean gertaera sozialak nola ospatzen diren aztertzen duten lanetan.

5.5. Ea parte hartzen duen gainerakoak baino geroago eskolatu diren ikasleen harrera-jardueretan.

2.3. Establece relaciones pacíficas y solidarias.

2.4. Actúa con autonomía y responsabilidad en sus actividades diarias tanto a nivel escolar, familiar como en el entorno inmediato

3. Proponer, elaborar y respetar las normas de convivencia, utilizando el diálogo y la mediación en el tratamiento del conflicto.

3.1. Respeta las normas de convivencia y ayuda en la consecución de un buen clima en el grupo

3.2. Participa en la detección de situaciones que crean conflictos y en la propuesta de comportamientos adecuados para poder evitarlos.

3.3. Describe una situación de conflicto de su entorno inmediato y utiliza estrategias para la búsqueda de soluciones o alternativas.

3.4. Utiliza el diálogo para superar divergencias y establecer acuerdos.

3.5. Muestra en su conducta habitual y en su lenguaje respeto y valoración crítica constructiva.

4. Colaborar en las actividades de los grupos de referencia próximos (familia, escuela, barrio, localidad , con actitud cooperativa y responsable.

4.1. Pide ayuda cuando necesita y la ofrece a quien la necesita.

4.2. Propone ideas y acciones y colabora en los grupos para llegar a la meta decidida entre todos

4.3. Argumenta y defiende las propias opiniones con respeto.

4.4. Actúa con responsabilidad con respecto a las tareas asignadas en los grupos de aula, centro o entorno próximo.

4.5. Toma parte en actividades que ayudan a mejorar su entorno inmediato.

5. Reconocer la diversidad existente en la sociedad, valorarla positivamente y mostrar respeto por las costumbres y modos de vida de personas y poblaciones distintas a la propia.

5.1. Reconoce aspectos positivos de otras culturas.

5.2. Recaba información sobre distintos grupos culturales.

5.3. Manifiesta respeto hacia otras culturas y formas de vivir.

5.4. Colabora en trabajos referidos a maneras de celebrar determinados hechos sociales en culturas diferentes.

5.5. Participa en actividades de acogida a alumnado de incorporación tardía.

6. Giza Eskubideen nazioarteko aitorpenean eta haurren eskubideei buruzko Konbentzioan jasotako eskubide eta betebeharrak ezagutzea eta balioestea, bai eta eskubide horiek urratzen dituzten egoerak ere.

6.1. Ea ezagutzen dituen Giza Eskubideen nazioarteko aitorpenean eta haurren eskubideei buruzko Konbentzioan jasotako zenbait Giza Eskubide.

6. 2. Ea egoera bidegabeak eta Giza Eskubideak urratzen dituzten egoerak antzematen, onartzen eta hitzez adierazten dituen, bai bere inguruan gertatu direnak, bai eta komunikabideen bidez ezagutu dituenak ere.

6.3. Ea informazioa bilatzen duen haurren eskubideak urratzen dituzten egoerei buruz eta ikaskideekin batera aztertzen duen.

6.4. Ea informazioa biltzen duen herrian eta probintzian haurren eskubideak zaintzen dituzten zerbitzuei eta erakundeei buruz.

6.5 Ea iritzi kritikoak ematen dituen bidezkoa denari eta ez denari buruz, gizateriarentzat desiragarri denari buruz eta datozen belaunaldientzat desiragarri denari buruz.

7. Komunitate bateko kide sentitzea, horren dinamikak aztertzea eta norberaren eta gainerakoen ekarpenak aintzat hartzea, elkarren artean ulertzeko eta solidaritatea eta kohesio soziala errazteko.

7.1. Ea antzematen dituen gelaren edo ikastetxearen barruan taldeko pertsona bat bakartzea edo baztertzea eragin dezaketen egoera edo ekintzak.

7.2. Ea laguntzen duen gelara edo ikastetxera iritsi berri diren ikasleentzako harrera-planak egiten.

7.3. Ea taldeko jardueretan aktiboki parte hartzen duen gelan, ikastetxean eta komunitatean, bere ingurune hurbileko bizitza demokratikoa hobetzen laguntzeko.

7.4. Ea hainbat bitartekoren bidez, bere inguruneko gainerako kideak animatzen dituen ingurunea modu iraunkorrean kudeatzen parte hartzera.

8. Bidegabekeria- eta bereizkeria-egoerak antzematea, aztertzea eta baztertzea, hala nola generoagatik, jatorriagatik, etniagatik, sinesmenengatik, desberdintasun sozialengatik eta pertsonalengatik, orientazio afektiboagatik edo sexualagatik edo beste edozein arrazoirengatik gertatzen direnak.

8.1. Ea antzematen dituen parte hartzen duen taldeetan gertatzen diren bereizkeria-egoera konkretuak.

8.2. Ea bereizkeria mota edo forma oro baztertzen duen.

8.3. Ea aztertzen eta proposatzen dituen bereizkeria-egoeren aurrean hartu beharreko neurriak, bai ikastetxean, bai eta lagunartean ere.

8.4. Ea ezagutzen dituen ikastetxean eta herrian bidegabekeria-egoerak salatzeko dauden bideak.

6. Conocer y valorar los derechos y obligaciones que se derivan de la declaración internacional de Derechos Humanos y la Convención sobre los derechos del niño y situaciones en las que estos derechos no se cumplen

6.1. Conoce algunos de los Derechos Humanos recogidos en la Declaración Universal de los Derechos Humanos y en la Convención sobre los Derechos del Niño.

6.2. Identifica, reconoce y verbaliza situaciones injustas y de incumplimiento de los Derechos Humanos tanto en su entorno como a través de la información que proporcionan los medios de comunicación.

6.3. Busca y comparte con sus compañeros información sobre situaciones de vulneración de los derechos de los niños y niñas.

6.4. Recaba información sobre los servicios e instituciones a nivel local y provincial que velan por los derechos de la infancia.

6.5. Describe y emite juicios críticos, sobre lo justo y lo injusto, lo deseable para toda la humanidad y lo deseable para las generaciones futuras.

7. Sentirse miembro de una comunidad, analizando sus dinámicas y valorando las aportaciones propias y ajenas, para favorecer el mutuo entendimiento, la solidaridad y la cohesión social.

7.1. Identifica en el aula o centro situaciones o acciones que deriven o desemboquen en aislamiento o marginación de alguna persona del grupo.

7.2. Participa en la elaboración del plan de acogida para el nuevo alumnado del aula o centro.

7.3. Toma parte activa en las actividades de grupo de aula, centro y comunidad que ayudan a mejorar la vida democrática de su entorno inmediato.

7.4. Utiliza distintos medios para animar al resto de miembros de su entorno a participar en la gestión sostenible del entorno .

8. Identificar, analizar y rechazar las situaciones de injusticia y discriminación existentes por razón de género, origen, etnia, creencias, diferencias sociales y personales, orientación afectivo-sexual o de cualquier otro tipo.

8.1. Identifica situaciones de discriminación concretas en el seno de los grupos de los que forma parte.

8.2. Rechaza todo tipo o forma de discriminación.

8.3. Analiza y propone medidas de actuación ante situaciones de discriminación tanto en el centro como en su entorno de amigos y amigas.

8.4. Conoce los cauces que existen en la escuela y en el municipio para denunciar las situaciones de injusticia.

9. Pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna defendatzea, gizonezkoen eta emakumezkoen eskubide-berdintasuna balioestea, bereizkeria dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak baztertzea, eta berdintasunezko jarrerak bultzatzea pertsonaren garapen integrala bermatzeko.

9.1.Ea aztertzen eta debatitzen dituen gizonezkoen eta emakumezkoen artean desberdintasun-egoerak sorrarazten dituzten gertaerak edo arazoak.

9.2. Ea parte hartzen duen estereotipoak eta bereizkeria-irudiak baliogabetzeko dinamiketan.

9.3. Ea, rol-jokoen bidez, hainbat eskubide-urratze antzezten dituen, eta bere analisiak ikaskideei azaltzen dizkien.

9.4. Ea publizitate-hizkuntzan, emakumezkoaren irudiari erasotzen dioten estereotipoak eta rolak antzematen dituen.

9.5. Ea hitzezko hizkuntza eta hitzik gabekoa era ez-sexistan erabiltzen dituen.

10. Ingurumenaren egoeraz ohartzea eta kontsumismoarekiko eta ingurune hurbila zaintzeko erantzukizun-jarrerak indartzea.

10.1 Ea arauak betetzen dituen ikastetxeko eta ingurune hurbileko baliabideen kudeaketa egokiari buruz.

10.2. Ea erantzukizunez jokatzen duen kontsumoari dagokionez, eta bere ingurune fisiko hurbila zaintzearekin konprometituta dagoen.

10.3. Ea ikerketa txikiak egiten dituen baliabide naturalak eta produktuak ekoiztearen eta horiek kontsumitzearen artean dauden erlazioei buruz.

10.4. Ea adibideen bidez ulertu eta aztertzen duen gizakiak baliabideak ustiatzean ingurumena aldatzen dela.

10.5. Ea informazioa biltzen duen bere herrian edo probintzian ondare naturala berreskuratzeko eta mantentzeko egiten ari diren jarduerei buruz.

10. 6. Ea, aisia-jardueretarako planak egiterakoan, kontuan hartzen dituen irizpide ez-kontsumistak, sortzaileak eta ingurumena errespetatzen dutenak.

9. Defender la igualdad de derechos y oportunidades de todas las personas, valorar la igualdad de derechos entre hombres y mujeres, rechazar los estereotipos, prejuicios y roles que supongan discriminación y promover una actitud igualitaria para garantizar el desarrollo integral de la persona.

9.1. Analiza y debate casos o dilemas que plantean situaciones de desigualdad entre hombres y mujeres.

9.2. Participa en dinámicas enfocadas a la ruptura de estereotipos e imágenes discriminatorias.

9.3. Participa a través del juego de rol en la representación de situaciones de vulneración de derechos y comparte sus análisis con los compañeros y compañeras.

9.4. Identifica en el lenguaje publicitario estereotipos y roles que agreden a la imagen de la mujer.

9.5. Utiliza de manera no sexista tanto el lenguaje verbal como el no verbal.

10. Tomar conciencia de la situación del medio ambiente y desarrollar actitudes de responsabilidad respecto al consumismo y en el cuidado del entorno próximo.

10.1. Respeta las normas sobre la adecuada utilización de los recursos de su centro y entorno próximo.

10.2. Actúa con responsabilidad en relación con el consumo y está comprometido con el cuidado de su entorno físico próximo.

10.3. Realiza pequeñas investigaciones sobre la relación que existe entre los recursos naturales y la producción y consumo de los productos.

10.4. Identifica y analiza a través de ejemplos que la explotación de recursos naturales por el ser humano conlleva una alteración del medio.

10.5. Recaba información sobre las actividades de recuperación y mantenimiento del patrimonio natural que se están realizando en su localidad o provincia.

10.6. Tiene en cuenta en la planificación de actividades de ocio criterios no consumistas, creativos y respetuosos con el medio ambiente.